

1- ARIKETA

TELESONIKA, S.A. enpresak X0ko abenduaren 31n Fondo Propioen honako egitura hau aurkezten zuen:

Kapital Soziala (100.000 akzio., %100ean despolts.)	500.000€
Erreserba Legala	100.000€
Borondatezko erreserba	1.000.000€
Ekitaldiko emaitzak	500.000€

X1eko otsailaren 1ean enpresak kapital zabalkuntzaren eragiketa hasiko du, 20.000 titulu berri parean jaulkiz, eta %20a Erreserben kargura liberatuz. Zabalkuntzaren zenbatekotik (dena eskudirutan) erdia harpidetzaren unean eskatzen da, eta beste erdia apirilaren 1erako. Despoltsaketa guztiak behar bezala erantzuten dira.

ESKATZEN DA: TELESONIKA enpresarentzat, zabalkuntza eta despoltsaketa guztiekin agertzen diren eragiketak kontabilizatu.

NOBROUK enpresak, negoziatzeko TELESONIKAREN 25 akzio ditu (Kontabilitate Balioa = 320€). Merkatua azertu ondoren, inbertitzeko une ona dela ikusi du eta beste 5 akzio harpidetu ditu aipatu den zabalkuntzan, despoltsaketarako dauden baldintza guztiak errespetatuz. Harpidetzarako korretaia eta komisio gastuak 5,2 € izan dira.

ESKATZEN DA:

- 1- NOBROUK, SA sozietateak duen inbertsio hau zein balioespen kategoriatan sailkatuko da? Eta zeintzuk izango liriateke balioespen irizpideak? Arrazoitu erantzuna.
- 2- Harpidetza (otsailean) eta dibidendu pasiboaren ordainketa (apirilaren 1ean) kontabilizatu.

Ekainaren 29an BROUKER sozietateak, TELESONIKAREN 100 akzio erosi ditu burtsan epe laburrean negoziatzeko asmoarekin eta akzio bakoitzeko 0,4 euroko dibidendua emango dela jakinda (Batzar Orokorrean onartuta dago). BROUKERek erosketa egitean, dibidendu hori guztiz sortuta dagoela hartu du kontuan.

Erosketa eguneko kotizazioa %460koa da eta eragiketaren gastuak 6,45 eurokoak.

ESKATZEN DA:

- 1- BROUKER, SA sozietateak duen inbertsio hau zein balioespen kategoriatan sailkatuko da? Eta zeintzuk izango liriateke balioespen irizpideak? Arrazoitu erantzuna.
- 2- Akzioen erosketa (ekainaren 29an) eta iragarritako dibidenduaren kobrua (uztailaren 2an) kontabilizatu.
- 3- BROUKERek bere finantza aktiboei buruzko balio aldaketarik islatu behar duen egiaztatu ekitaldi itxierako TELESONIKAREN kotizazioa 21€koa dela jakinik.

2- ARIKETA

X1eko abenduaren 21ean, INBEFON, SA sozietateak TXORI-ERRI S.A. enpresaren (ez du burtsan kotizatzen eta taldeanitz da) 1.000 akzio erosi ditu, 5,32 euro/akzio ordainduz eta 15 euroko gastuekin. TXORI-ERRI S.A. enpresaren akzio guztien balio nominala 5 eurokoa da.

Dagoeneko, TXORI-ERRI S.A. enpresak urtearen azken egunean ordainduko den X1 ekitaldiko mozkinaren konturako dibidendua (0,07 euro/akzio) iragarri du. (Erosleak, dibidenduaren osotasuna, erosketa baino lehenago sortua bezala hartzen du).

Dibidenduaren kobrantza Sozietateen gaineko zergaren konturako %21eko atxikipenarekin burutu da.

Ekitaldia bukaeran INBEFON, SA sozietateak bere aktiboen arrazoizko-balioa aztertu nahi du, dagokien eskuratze prezioekin alderatzeko. Karteran duen finantza inbertsio bakarrari buruz, honako informazio hau lortu du abenduaren 26an, aipatutako enpresaren itxiera dela eta:

<u>AKTIBOA</u>		<u>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</u>	
AKTIBO FINKOA	180.000	Fondo Propioak	103.900
		Kapital Soziala	100.000
		Erreserba Legala	1.000
		Estimatutako mozkin garbia	4.300
		-Konturako Dib. Aktiboa	(1.400)
		Epe Luzeko Galdagarria	100.000
<u>AKTIBOA GUZTIRA</u>	<u>390.000</u>	<u>OG ETA PASIBOA GUZT.</u>	<u>390.000</u>

ESKATZEN DA:

- 1- INBEFON sozietateak duen inbertsio hau zein balioespen kategoriatan sailkatuko da? Eta zeintzuk izango lirateke balioespen irizpideak? Arrazoitu erantzuna
- 2- Eragiketa guztiak kontabilizatu.

3- ARIKETA

BAT, SA elkarteak X0/12/31n, besteak beste, saldo hauek aurkeztu ditu (eurotan):

<i>(540) Epe laburreko Ftza Inb. Ondare-tresnetan</i>	<i>3.100€</i>
<i>("HIRU, S.A." enpresako 500 akzio; BN = 5)</i>	

Ekainean diru nahikorik ez daukanez, HIRU, SA enpresan daukan partaidetza osoa saltzea erabaki du. Azken honek, laster ordaintzekoa den dibidendua iragarri zuen orain gutxi (0,25 euro/akzio), eta "BAT, SA" enpresak dagoeneko kontabilizatuta dauka.

Salmenta prezioa 3.250 eurotan finkatu zen, baina 100 euroko gastuak egon dira.

Salmenta honetan lortutakoarekin, BAT, SA sozietateak 10 €ko Balio Nominalerako 150 bonu erosi zituen %120an epe laburrean negoziatzeko asmoarekin. Erosketaren gastuak 75€ izan dira.

Bonuen sortutako baina epemugatu gabeko interesa 0,3 eurokoa izan zen titulu bakoitzeko.

ESKATZEN DA:

- 1- HIRU, SA enpresaren akzioei buruz, BAT, SA sozietateak duen kartera mota identifikatu eta baloratzeko erabiltzen ari den irizpideak azaldu.
- 2- BAT, SA sozietateak egindako akzioen salmenta kontabilizatu.
- 3- BAT, SA sozietateak egingo duen inbertsio berriari buruz (bonuak), BAT, SA sozietateak edukiko duen kartera mota identifikatu eta baloratzeko erabiliko dituen irizpideak azaldu
- 4- BAT, SA sozietateak burututako Errenta Finkoko baloreen erosketak kontabilizatu.

4- ARIKETA

2011-07-01ean TAS, SA sozietateak taldekoa den enpresa baten 1.000 akzio erosi ditu (BN = 5 €/tit) guztira 25.000€ ordainduz. Zenbateko horretan sartuta daude, sortuta baina epemugatu gabeko dibidenduak (5 €/tit), 2011-08-15ean ordainduko direnak. Erosketa hau kudeatu duen bankuak 1.000€ kobratu dizkio TAS, S.A. sozietateari egindako zerbitzuak direla eta.

ESKATZEN DA: Kartera honetarako hasierako eta ondorengo balioespen irizpideak zeintzuk diren azaldu eta eragiketa kontabilizatu.

2011-08-15ean taldeko enpresa horrek, hasieran erabakitako dibidenduaz gain, 2010eko ekitaldiko mozkinen kontura beste 3€/akzioko dibidendua emango dela jakinarazi du. Zenbateko hau ere, data honetan kobratzen da.

ESKATZEN DA: 2011/08/15ean egin beharreko idazpenak egin (atxikipena %21).

2011-09-30an taldeko enpresa horrek kapitala zabaltzea erabaki du BN bereko akzio zahar bi bakoitzeko berri bat %120an jaulkiz.

TAS, SA sozietateak zabalkuntzara ez joatea erabaki du eta bere harpidetza lehentasun eskubide guztiak 1,5€/eskubidea zenbatekoan saltzea erabaki du.

ESKATZEN DA:

- 1) Eskubideen salmenta kontabilizatu TAS, SA sozietatearen ikuspuntutik, eragiketaren gastuak 50€koak izan direla jakinik.
- 2) Ekitaldi itxieran egiaztatu, eta beharrezkoa bada kontabilizatu, TAS, SA sozietateak 2011-07-1an erosi zituen akzioen balioespena zuzendu behar duen, zenbateko berreskuragarria 25€/tit dela jakinik.